

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

Arabako Lurralde Ordezkaritza

2025eko abuztuaren 12ko ebazpena, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko Arabako lurralde ordezkarirena, honen bidez, eratzearen dokumentazioa eta AFARTIAR empresa-elkartearen estatutuak gordailutu direla iragartzen da eta gordailutze horren publikitatea egiten da. (Gordailuaren kodea: 01/1/00040)

Sindikatu eta enpresa erakundeen Estatutuak Gordailutzeko Bulego Publiko honetan espediente hasi da eratzeari dagokion dokumentazioaren eta AFARTIAR empresa-elkartearen estatutuen gordailua dela eta, zeina Olga del Amo de Abiak aurkeztu baitu. Espediente hori ikusirik, ebazpena eman da, honako aurrekari hauek oinarri hartuta:

Aurrekariak

Lehenengoa. 2025eko uztailaren 2an aurkeztutako dokumentazioaren bidez, eratzeari dagokion dokumentazioa eta AFARTIAR empresa-elkartearen estatutuak gordailutzeko eskatu da.

Bigarrena. Aurkeztutako dokumentazioa bat dator sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko 416/2015 Dekretuak, maiatzaren 29koan ezarritakoarekin, eta honako hauek sinatuta dago, sustatzaile gisa: Isabel Yela Ruiz, Aintzane Hormaza Lara, Maria Leizaola Aguirrezabala, Aaron Peleteiro Rodriguez, Olga del Amo de Abia eta Leire Rementeria Villalta.

Hirugarrena. Haren jardueraren lurralde-eremua Araba da, eta haren eremu funtzionala, berriz, beraren estatutuen artikuluan ezarritakoa da.

Egitate horiei zuzenbideko honako oinarri hauek aplikatu behar zaizkie:

Zuzenbideko oinarriak

Lehenengoa. Sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeko eskumena organo honi ematen dio Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuak, Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 18.2 i artikuluan.

Bigarrena. Administrazio-prozedura honetan aplikatu behar den araudi substantiboa sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko apirilaren 1eko 19/1977an, eta maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren Legean jasotakoa da.

Hirugarrena. Gordailutzeko aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, zuzenbidezkoa dela egiaztatu da, eta, horrenbestez, bidezkoa da gordailutzeko onartzea eratzearen aktari eta AFARTIAR empresa-elkartearen estatutuei dagokien dokumentazioa eta egitate horren publikitatea egitea.

Aipaturiko oinarriak eta oro har aplikatzekoak diren xedapenak aztertu ondoren, honako hau

Ebazten dut

Lehenengoa. AFARTIAR empresa-elkartearen eratzeari dagokion dokumentazioa eta erakundearen estatutuak gordailutzeko agintzea. Gordailu honi 01/1/00040 kodea esleitu zaio.

Bigarrena. Gordailutze hori ALHAOn argitara emateko agintzea, sindikatu eta enpresa erakundeen estatutuak gordailutzeari buruzko maiatzaren 29ko 416/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako moduan.

Hirugarrena. Eman den egunaren biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Laugarrena. Edozein interesdunek aztertu ahal izango du gordailututako agiria, baita kopia eskatu ere. Agiria aurkaratu ahal izango da Arabako lan arloko epaitegiaren aurrean, Lan arloko Jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legean (2011ko urriaren 11ko EAO) xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abuztuaren 12a

Arabako lurralde ordezkaria
IBON LOPEZ ALDAZ